

Euskal AEko Goi-teknologia sektorearen negozio-zifra %4,8 txikitu zen 2012an

Sektore honetan daude I+G egiten duten enpresen %40,4 eta langile okupatuena %67,8

Goi eta goi-ertain sektorean oinarri teknologiko sendodun eta ezagutza-berrikuntza azkardun jarduerak ditugu; negozio-zifra, 17.959,9 milioi, 2012an, aurreko urtean baino %4,8 gutxiago, Eustaten datuen arabera.

Sektoreak 4.742 enpresa (%-1,8, aurreko urtearen aldean) eta 87.746 langile okupatu (%-2,2) zituen. Sortutako aberastasuna, balio erantsiaren terminoetan, 6.134,7 milioi; 2011n baino %3,7 gutxiago.

1. taula: Goi-teknologia sektorearen magnitude nagusiak, lurralde eta jarduera sektoreen arabera, 2012

	Enpresa kopurua	Landun kopurua	Negozio kopurua (1)	Balio erantsia (1)
Goi-teknologiaren sektorea	4.742	87.746	17.959,9	6.134,7
Lurralde Historikoa				
Araba/Álava	707	14.339	4.242,2	943,7
Bizkaia	2.408	36.458	6.547,5	2.642,6
Gipuzkoa	1.758	36.949	7.170,2	2.548,4
Jarduera-adarra				
Goi-industria eta Goi-ertain teknologia	1.850	61.414	14.688,2	4.148,3
Goi-teknologia	161	9.025	1.780,6	552,4
Goi-ertain teknologia	1.689	52.389	12.907,6	3.595,9
Goi-teknologia edo puntako zerbitzuak	2.892	26.332	3.271,7	1.986,4

(1) Milioika eurotan

Iturria: Eustat. Goi-teknologiako adierazleen panela

I+G egin eta berritzaileak diren enpresen portzentajea handiagoa da beste sektoretan baino


Enpresen %14,1ek I+G egiten du; sektoreen guztirakoan, %1,1ek; handia da aldea. Gainera, sektoreak –enpresa guztien %3,2- I+G egiten dutenen %40,4 biltzen du, eta enpresa-sektorearen I+G barne-gastuaren %61,9 -644,5 milioi- egikaritzen ditu.

Sektore honetan, 2012an, 9.110 langile aritu ziren I+Gn, dedikazio osoko baliokidetzan (enpresa sektore guztien %67,8); haien arteko 2.752, emakumeak. Gehiago zehaztuz enpleguan, dedikazio osoko baliokidetzan 5.309 ikertzaile aritu ziren; haien arteko 1.640, emakumeak.

Berrikuntzan, I+Gn bezala, alde esanguratsuak daude sektoreen guztirakoaren eta Goi-teknologiaren artean. 2012an, Goi-teknologia sektoreko establezimenduen

%31,8k berritzaileak izan ziren; sektoreen guztirakoan %11,6. Enpresaren tamaina kontuan hartuta, 10 enplegatu eta gehiagoko enpresetan, lehen kasuan %55,5, eta sektoreen guztirakoan %28,6.

1 grafikoa: I+G+b Goi-teknologiako enpresetan, eta sektore guztietan. 2012 (%)



Iturria: Eustat. Goi-teknologiako adierazleen panela

Berrikuntzan Goi-teknologiako establezimenduek 1.243,3 milioiko gastua egin zuten, enpresa guztienaren %48,1. Gastu horretatik, 1.104,6 milioi 10 langile eta gehiagoko establezimenduek eginak, tamaina horretako enpresen gastu guztiaren %50,7.

Begiratzen badugu zer den berrikuntzako eta I+G+b gastua negozio zifraren gainean (barne berrikuntzako eta barne I+G intentsitate-ratioak), begi bistakoa da, baita ere, Goi-teknologiaren sektorean baliabide gehiago joan zirela I+G+b-ra gainerako sektoreetan baino. Berrikuntzaren intentsitatea 6,5 da sektorean eta 1,6 besteetan. Barne I+Gn ratioa 4,0 da Goi-teknologian eta guztirakoan 0,9.

Bai IKT teknologiak, bai merkataritza elektronikoa zabalduago daude IKT sektorean sektoreen guztirakoan baino.

IKT teknologien erabilera oso zabaldua dago sektore honetako enpresen artean, baina merkataritza elektronikoen erabilerak, gainerako sektoreetakoaren gainetik badago ere, ezarpen handirik gabe dirau, batez ere salmenten aldetik. Erosketak egindako Goi-teknologiako establezimenduak %39,2 eta salmentak %9,0 izan ziren; sektoreen guztirakoan %18,0 eta %4,6.

2. taula: Goi-teknologia sektoreko berrikuntzako eta barne I+G intentsitatea, lurralde-arlo, jarduera sektore eta enplegu-geruzen arabera. 2012 (%)


	Guztira		10 langile eta gehiago	
	Berrikuntza intentsitatea	Barruko I+Garen garrantzia (2)	Berrikuntza intentsitatea (1)	Barruko I+Garen garrantzia (2)
Sektore guztira	1,62	0,86	2,12	1,23
Goi-teknologiaren sektorea	6,51	4,03	6,22	3,87
Lurralde Historikoa				
Araba/Álava	4,89	1,75	4,75	1,63
Bizkaia	6,50	4,30	6,22	4,15
Gipuzkoa	7,54	5,18	7,18	5,05
Jarduera-adarra				
Goi-industria eta Goi-ertain teknologia	4,26	2,14	4,26	2,13
Goi-teknologia	6,90	4,43	5,88	3,87
Goi-ertain teknologia	3,90	1,82	4,04	1,89
Goi-teknologia edo puntako zerbitzuak	13,88	10,23	13,59	10,43

(1) Berrikuntzaren garrantzia: (berrikuntzako gastuak/negozioen kopurua)*100

(2) Barruko I+Garen garrantzia: (barruko I+G gastuak/negozioen kopurua)*100

Iturria: Eustat. Goi-teknologiako adierazleen panela

2. grafikoa: IKTn erabilpena 2012an (%)




Iturria: Eustat. Goi-teknologiako adierazleen panela

Goi-teknologia sektoreak ondasunen kanpo merkataritzan duen eragina ez da oso esanguratsua. Esportazioak 756,7 milioi (%3,6) izan ziren, guztirakoa 20.971,2; inportazioak 510,2 milioi (%3,2) guztirakoa 15.824,6.

Esportazioetan nabarmentzen dira: Makineria eta ekipo mekanikoa (%53,9), Eraikuntza aeronautiko eta espaziala (%13,3), Material elektronikoa eta ekipoak

(%12,0). Inportazioetan: Material elektronikoa eta ekipoa (%31,9), Lanabes zientifikoak (%16,8), Makineria eta ekipoa (%16,8), Eraikuntza aeronautiko eta espaziala (%16,7).

3 grafikoa: Euskal AEko eta Espainiako 10 enplegatu eta gehiagoko enpresen alderaketa (%). 2012



Iturria: EUSTAT eta EIN

Azkenik, 10 enplegatu eta gehiagoko enpresen Goi-teknologiako sektorearen Euskal AEko eta estatuaren osotasunean, bada alderik adierazleetan. Euskadin enpresa berritzaileen portzentajea, berrikuntza intentsitatea eta I+Gn ari den langile portzentajea handiagoak dira estatuaren osotasunean baino; I+G gastuaren proportzioa handiagoa da Espainian. IKT teknologien erabileran portzentajeak oso antzekoak dira.

Ohar metodologikoa:

Goi-teknologiako sektoreak: haien konplexutasunagatik, ikerkuntza-ahalegin etengabea eta oinarri teknologiko sendoa behar dituztenak dira. [Web Eustat. Metodologia fitxa: goi teknologia-adierazleen panela](#) estekan daude sektoreko jarduerak, 2009 EJSN-ren arabera.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62